

ERASO! “Oraina eta Geroa”

oraina eta geroa

zein beldurgarria den aurrean dudaren
itzalen artetik pasatzea
zein erakargarria den
atzeko atek itxi eta berri hauei aurre egitea
zein aberasgarria den
etorkizuna lantzeko , teresnak erabiltzea
zein beldurgarria den
ordaina jaso beharrean, zuk zeuk ordaindu
beharra
ziur, aurrera egin nahi dut
ziur aurrera egin nahi dut
berriak , bide guztiak
berriak , arau guztiak
berriak , pauso guztiak
berria, guztia
zein estimagarria den
jakitea bizitza ez dela gelditzen, bihurtune
estu baten
zein iraingarria den batzuk pentsatzen duten
erara jardutea eta jardun beharra
berria, sentimendua
berria , gure zentzua
berria , oraina eta geroa
berria, guztia
ziur , aurrera egin nahi dut

sasiak, zainetan hasiak

eraikin uherren altzoan
urteen joana soma dezaket
inoiz jaio nintzen larreetan
nostalgiaz zaitut arnasten
sasiak, zainetan hasiak
betiko irauten ote du
galdu ziren lagunaren laztanak
hildako arbasoen etzana
betiko ote lurraren zama
sasiak , zainetan hasiak
zu , lur , baso itzalduearenpean
zu, lur herio arnas estuetan
begirada urratuetatik
zure zabalera beltza datorkit
bildu nazazu mantu ederrez
zor nintzaizun sormena errez
sasiak, zainetan hasiak
zu, lur , iragan denboraz askatu
zu, lur oroimin hau saihestu
zu, lur joandakoak mintza bitez
zu, lur zure sasi zainen bitartez

arauetara kateaturik

kontzeptu sustraiak
logiko, funtsezkoen gain,
gizarte biribil baten irudipean bizi
itsuturik ikusten ikasi
lau edo bostgarren munduen ikuspegitik
sor dezaketen bakarra
hutsezko kanpai soinua
azken egunari deika, irrikatzen
itsuturik ikusten ikasi
lau edo bostgarren munduen ikuspegitik
eta horientzat
horientzat guztientzat
infernu betezkoberoan
orainak ere geroan

ez da bidea

justiziaren balantza desorekatu egin da
badirudi alde batera joateko ardura duela
nire delitu bakarra , ni neu izatea
norbaiten antza izan eta batenbatek ordaindu
beharra
horrelako gauzak ; sinetsi behar
zer uste dute horiek ; inozoak garela
beraien legeak ukiezinak direla
erortzeko arriskurik ez dutela?
ez da bidea
somatu dezaket ziria, sartu nahi digutena
erlez josita dagoen erlontzi betea
ez da bidea
horrelako gauzak ; sinetsi behar
zer uste dute horiek ; inozoak garela
beraien legeak ukiezinak direla
erortzeko arriskurik ez dutela.

arazoen zergatia

hor noa bakarrik , bakardadean, autobus hori
bere kristaletan , ene aurpegia islatuz
erretratu mugikorraren protagonista naiz
nire ihesaldiaren jabea naiz.
zer egin dut?
ez diot inori errurik bota
ez diot inori erakutsi bidea
haizeak bultzaturik aurrera doa
inoiz orbainduko ez zaion zauria
han mulgildu naiz
beste sentsazio baten bila hasi naiz
dagoeneko ahaztua dut hona ekarri nauen
arazoa
dagoeneko ahaztua dut hona ekarri nauen
arazoen zergatia
zer egin dut?

oztopoak gainditu

zuek ez didazue inoiz ulertu
dagoeneko ezin dira gauzak aldatu
erabaki zuzena hartu ote dut
eta babesik gabe , bizitza onartu.
buruan ditudan , kezak txukundu
aurrera begira, ideiak burutu
eta oraingoan , bidean ez gelditu
eta oraingoan , ni neu aurkitu
ni neu aurkitu
beharbada ez da oso garbi gelditu
beharbada ez didazue sinistu
baina argi eta garbi utzi nahi dut
nirea den hau ezin didazue kendu
bizitz berri bat, eta beste hiri bat
oztopoak gainditu , milaka trabaz
baina oraingoan , ez naiz gelditu
eta oraingoan, ni naiz aurkitu
ni naiz aurkitu
eta ez dakit, nola joango den
eta ez dakit , itzuliko naizen
eta ez dakit , zer izango den
eta ez dakit,....

etorkin-zuna

amaren malkoez eta saminez
etorkizunaren ispilua margotzen
gogorra izango zela banekien
putasemez josita egon arren

baina nik ez nuen inoiz pentsatu
itsas-arteza pasa eta horrela bukatu
nik zergaitik ez?
nik ez dut ezer?
saltzen diguten bizitzeko eran
ez du lekurik lehen gertatzen zenak
bat txarra izan behar , onak on izateko
berekoiaz gain putasemetik pasatzeko
baina nik ez nuen inoiz pentsatu
hainbesterako zela , esaten zidatena
nik zergaitik ez?
nik ez dut ezer?
etorkizuna etorkinekin bat!
etorkin- zuna

mutu bezain gor hago

itsu hago , hire botereaz
itsu hago, hire indarrak
itsu hago, dagoen desorekaz
itsu hago, mutu bezain gor hago
eta dena goruntz doa
inflazioarekin batera
miseria berriz bider bi
diskriminazioa jakintzak hi!
itsu
itsu hago, narrukeriaz blai
itsu hago, jasanmezina haiz
itsu hago, ama saltzeko gai
itsu hago , mutu bezain gor hago!
eta ez gaude ados
ez dugu isildu behar
zerbaiten aurka bagaude
entzungo gaituzte!

joan etorriak

herrimenez bustitako
arimak ihes egin dit
nire baimenez hor doa
zerbaiten bila alde eginda, eta badoa...
egun batean amestutako ametsak
bizitzera, eta badoa....
noizbait amestu zituen ametsak
bahitzera, eta badoa...
joan etorriak
bahitutako denbora
gorde dudana irudia
haurtzarora bueltatu nau
bizikeriak gogoratuz
egun batean amestutako ametsak
bizitzera, eta badoa
eta beraiekin jatorria hobe ulertzera, eta
badoa
inoiz jakin zuen hori ezinezkoa izango
zela, eta badoa
noizbait amestu zuena , errealitatea
izatera.
joan- etorriak